


Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmentak % 3,6 igo dira 2021 osoan

2021eko laugarren hiruhilekoan, salmentak ere % 3,3 igo ziren, 2020ko hiruhileko beraren aldean

Eustaten datuen arabera, **2021eko balantzean** txikizkako merkataritzaren salmentak % 3,6 gehitu dira aurreko urtearen aldean, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan eta prezio konstanteetan. Hornitegiak alde batera utzita, urteko salmenta metatuak % 3,3 hazi dira termino berberetan.

2021eko metatuan, **elikadurak** % 3,2 egin du behera, eta **gainerako produktuen merkataritzak**, berriz, portaera positiboa izan du, % 9,8 hazi baita aurreko urte osoarekin alderatuta. Automobilgintzarako erregaiaren salmentak, bestalde, % 8,2ko hazkundera izan du.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Elikagaien txikizkako merkataritzaren barruan, 2021ean merkataritza espezializatua % 0,8 igo da 2020. urtearen aldean, eta elikadura nagusi duen merkataritza ez-espezializatua % 4,9 jaitsi da.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan, 2021eko metatutan portaera positiboa izan da gehienbat. Izan ere, etxeko ekipamenduan espezializatutako merkataritzaren salmentak % 19,4 igo dira, pertsonen ekipamenduetan espezializatutako merkataritzarenak % 7,3 eta beste kontsumo-ondasun batzuetan espezializatutako merkataritzarenak % 5,8. Gainerako produktuetan nagusi den merkataritza ez-espezializatuaren sektorean, aldiz, salmentak % 0,1 jaitsi dira 2021 osoan, aurreko urtearen aldean.

Lurralde historikoka eta prezio konstanteetan, salmentek gora egin dute 2021ean lurralde guztietan, baina intentsitate desberdinarekin. Hala, Gipuzkoa izan da gehien igo den lurraldea, % 5,4ko hazkundearekin; ondoren Bizkaia, % 3,3ko hazkundearekin, eta, azkenik, Araba, % 1,1eko hazkundearekin.

Azkenik, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektoreko enpleguak % 0,9 egin du gora 2021ean, aurreko urteko batez bestekoaren aldean.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2021/IV

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	3,3	1,1	3,6
Araba/Álava	-4,7	-0,9	1,1
Bizkaia	3,2	0,9	3,3
Gipuzkoa	7,3	2,3	5,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	-1,7	0,2	-3,2
Elikagaien saltoki espezializatuak	6,0	0,4	0,8
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	-5,1	1,6	-4,9
Gainerako produktuak	8,0	4,0	9,8
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	17,1	2,1	7,3
Etxearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	11,1	3,3	19,4
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	1,2	2,3	5,8
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	-8,3	1,0	-0,1
Automoziorako erregaia	3,4	0,8	8,2
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe			
	3,3	2,2	3,3
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	2,9	-0,1	0,9

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2022ko Otsailaren 8a

Iturria: Eustat. Txikizkako Merkataritzaren Indizea (BMI)

2021eko laugarren hiruhilekoko datuak soilik aztertuta, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmentak % 3,3 gehitu dira prezio konstanteetan, aurreko urteko denboraldi beraren aldean, dagozkion egutegi-ondorioak atera ondoren. Sektoreko salmentak ere, hornitegiak kontuan hartu gabe, % 3,3 igo dira urtetik urtera.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenten indizeak hiruhilekotik hiruhilekorako 1,1eko aldakuntza positiboa izan du, prezio konstanteetan eta urtaro-eraginak kenduta.

Sektoreka, elikagaien salmentak % 1,7 jaitsi dira 2021eko laugarren hiruhilekoan, eta gainerako produktuen txikizkako merkataritzaren salmentak eta automobilgintzarako erregaiaren salmentak % 8,0 eta % 3,4 igo dira, hurrenez hurren.

Elikagaien txikizkako merkataritzaren barruan, merkataritza espezializatuak % 6,0 gora egin du urteko azken hiruhilekoan, eta elikadura nagusi duen ez-espezializatua, berriz, % 5,1 jaitsi da.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzak urtetik urterako portaera positiboa izan du sektore gehienetan. Pertsonen ekipamenduetan espezializatutako merkataritzan, salmentak % 17,1 igo dira, etxeko ekipamenduan espezializatutako merkataritzan % 11,1 eta kontsumo-ondasunetan espezializatutako merkataritzan % 1,2. Gainerako produktuetan nagusi den merkataritza ez-espezializatuari dagokionez, salmentek % 8,3 egin dute atzera.

Lurralde historikoei dagokienez, txikizkako merkataritzako salmenten bilakaera desberdina izan da urtetik urtera. Salmentak % 7,3 igo dira Gipuzkoan eta % 3,2 Bizkaian. Araban, ordea, 2021eko laugarren hiruhilekoan salmentak 2020ko laugarren hiruhilekoan ikusitakoak baino % 4,7 txikiagoak izan dira.

Azkenik, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean, 2021eko laugarren hiruhilekoan, landunen kopurua % 2,9 gehitu da, aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean. 2021eko hirugarren hiruhilekoaren aldean, berriz, % 0,1 jaitsi da.

INFORMAZIO-OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste batzuetan aintzat hartutako enplegatuen artean, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente bati (ABEEE) atxikitako pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaren definizioari jarraituz.

Egutegi-efektuak zuzentzeko eta serieak desestazonalizatzeko erabilitako ereduak jaso egiten dute COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat-ek) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, laugarren hiruhilekoko indizea laginaren % **95,4ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62